

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure bezeroak supermerkatuak eta gure makinak alokatzen dituzten enpresak dira. Haiekin harremana zuzena dugu, eta Paula horretaz arduratuko da. Nola kontaktuko ahalko ote dute gurekin bezeroek? Eskainiko dugun posta elektronikoaren bidez edota emango diegun telefono zenbakiaren bidez. Baita sare sozialen bidez ere zalantzak argituko ditugu egunero.

Fidelitasuna eskuratzeko (hau da, bezeroak mantentzeko) hainbat baliabide eskainiko diegu bezeroei, hala nola, urtero makinaren azterketa sakona egingo dugu, makina ondo dabilen ziurtatzeko. Apurtuz gero, gu konpotzeaz arduratuko gara.

Bezero berriak eskuratzeko, desberdintze-estrategia erabiliko dugu, hau da, gure produktua beste produktuengan nabarmenduko da. Nola? Bada, teknologia berria erabiliko dugu eta deskontuak markek emango dituzte (beste enpresa batzuk egiten dutena plastikoen truke dirua ematea da. Gu, aldiz, deskontua produktu beran eskaintzen dugu). Espezialisazio-estrategia ere erabiliko dugu, hau da, hasiera batean supermerkatu handienetan zentratuko gara, horrela gure makina arrakasta handiagoa izango baitu, eta geroago zabalduko gara supermerkatu txikiagotara.

